

FEDEAREN MISIOLARI

2012ko DOMUND jardunaldirako mezua

Mario Izeta Gabikagogeaskoa

Anai-arreba maiteok

1. Fedearen Urtea ospatzen dihardugu. Aita Santuak, honan, Vatikanoko II. Kontzilioaren hasierearen berrogeta hamargarren urteurrena eta Eliza Katolikoaren Katiximaren aldarrikapenaren hogeigarren urteurrena gogoratu gura izan ditu. Fedearen urtea aukera ona izan daiteke fedearen bakarkako eta alkarteko esperientzia barritzeko, fededunen misiolari testigantza suspertzeko, fedearen barri emotearen poztasunaz behin eta barriz jaubetuz.
2. DOMUND eguneko aurtengo kanpainak be bat egin gura dau graziazko gertaera honegaz. "Fedearen misiolari" goiburua aukeratu dabe. Gure fedea berraurkitzea proposatzen jaku lehenengo eta behin, gure artean bizirik dagoan Jesukristogazko gure atxikimendu pertsonala zein komunitarioa zein egoeratan dagoan aztertzea. Ezin dogu fedea zabaldu doe preziatu eta bikain lez, merezi ez dogun doe lez baloratzen ez badogu; izan be, Benedikto XVIak dinoanez, "gure bizitzan emon izan jakun doerik garrantzitsuena da eta ezin dogu geuretzat bakarrik gorde" (2012ko DOMUND egunerako mezua, 9).
3. Jaso doguzan doe eta talentuen artean, fedeak ze leku daukan galdetu beharko geunskio geure buruari. Fedeari gure bizitzan emoten deusagun garrantziaren araberakoa izango da besteei jakinarazoteko sendotasuna eta konpromisoa. Makala bada, gitxi baloratzen badogu, beste doe, elementu edo osagai batzuk garrantzitsuagoak dirala eta horreei komunikatu, suspertu edo sendotu behar doguzala pentsatuko dogu. Baina fedea jasotako doe liluragarritzat badogu, berau transmititzeko eta komunikatzeko konpromisoak ohiz kanpoko indarra izango dau.
4. Vatikanoko II. Kontzilioaren hasierearen berrogeta hamargarren urteurrena ospatzean, graziazko gertaera honek Elizea bere misiolari alderdi sakon eta funtsezkoan ulertzeko emon euskun argia gogoratu behar dogu. Elizea maitasunezko eta eginkizun unibertsaleko misterioa dala dinosku Lumen Gentium konstituzinoak. Hedatzen dan eta lurreko nazino eta herri guztietan distiratu eta gorpuztu behar dauan Jaungoikoaren maitasuna da, Jesukristogan agertzera emondakoa. Gaudium et spes konstituzinoak, sasoi barrietan misinoari zer eskatzen jakon bereiztuz, Espirituak dauan jardueraz hitz egiten deusku. Eta Ad gentes dekretuak Elizearen misiolari alderdiaren ezaugarri nagusiak zehazten ditu. Egokia litzateke dekretu hau barriro irakurtea, gure Elizbarrutiaren misiolari eragina barritzeko.
5. Misinoen hilabete nagusia dan urri honetan ospatuko da Erroman Gotzainen Sinodoa, Ebanjelizazio Barriaren gaiaren inguruan. Makina bat alderdi landuko da bertan eta azken agirian luze eta zabal emongo jaku horren barri. Agiri hori erabili ahal izango dogu gure elizbarrutian gai hau aztertzeko. Baina ebanjelizatzailearen garrantzi erabagigarria be nabarmendu gurako neuke. Misiolari jarduera hau gauzatuko bada, nahitaezkoak dira eginkizun eder hau garatuko daben persona jakin batzuk eta Barri Onaren beren-beregiko bizipen eta iragarpenean erabat konprometituta dagozan kristinau alkarte biziak. Gure bizitza etenbarik, gogotsu,

arduratsu Ebanjelioan eta Jesusi jarraitzean erabagiz oinarritzen saiatzen garan galdetu beharko geunke. Haren sentimentu eta jarrerak geure egiten ahalegintzen garan. Jesusek bera ezagutzeko, maitatzeko eta berari jarraitzeko egiten deuskun deiari erantzun eskuzabala emotetik sortzen da bere lekuko eta munduaren azken muturreraino errealidadearen eraldatzaile egiten gaituan bizitzaren eraldaketa. Fedea bizitzea eta bizi egitea zoragarria da eta ez dago besteei jakinarazotea baino egiteko ederragorik.

6. Gure fedea suspertzeko, guren inguruan interpelataile izateko gaitasuna emongo deuskun jokamolde ebanjelikoan bizitzen laguntzeko eskatzen deutsagu Jaunari DOMUND egun honetan. Geure misiolari bokazinoaz jaubetu gaitetzala. Lagundu deiegula misiolari egitekoan diharduen gure anai eta arrebei, gure otoitz eta laguntasun ekonomiko, material eta espiritual eskuzabala eskaini deiegula misinoko Elizei. Fedearen urte honetan, konturatu gaitetzala guztiok, Kristoren jarraitzaile izatean "fedearen misiolari" bihurtu garala eta fede hori ausardiaz eta poztasunez zabaldu behar dogula. Maria gure Ama lagun izan daigula eginkizun zoragarri honetan.

Bihotzez eskatzen deutsat Jaunari bedeinkatu zaiezala. Jaso eizue anai besarkada bat.

+ Mario Izeta Gabikagogeaskoa
Bilboko Gotzaina